

2.2. Merkatuaren segmentazioa

Proiektu hau haur eskola eta ikastolei zuzenduta dago, hau da, 0 eta 6 urte bitarteko haurrak joaten diren hezkuntza-erakundeei. Leku horietan, hezitzaileak umeez etengabe adi egon behar dute, eta askotan ez dute denbora nahikorik haur guztiek egun osoan zehar behar adina ura edaten dutela ziurtatzeko. Horregatik, haurren botilak automatikoki betetzen dituen makina bat oso lagungarria izan daiteke, bai haurren ongizatea hobetzeko, bai langileen lana errazteko ere.

Bezero nagusiak haurreskolak eta ikastolak dira, publikoak zein pribatuak, baita zentro horiek kudeatzen dituzten udal edo autonomia mailako erakundeak ere. Gainera, ikastetxeko guraso elkarteek (IGE-ek) ere interesa izan dezakete halako proiektu bat bultzatzeko edo finantzatzeko, euren seme-alaben osasunean eta erosotasunean hobekuntza zuzena dakarrelako.

Produktuaren erabiltzaile zuzenak haur txikiak izango lirateke, euren botilak modu errazean eta autonomoan bete ahal izango dituztelako, eta aldi berean, hidratazioaren garrantziaz jabetuko direlako. Zeharkako erabiltzaileak hezitzaileak izando dira, makinak denbora aurrezteko eta beste zeregin pedagogiko batzuetan arreta jartzeko aukera emango dietelako. Gurasoek ere onura izango dute, euren seme-alabak egunean zehar behar adina ura edaten dutela jakinda.

Merkatuaren ikuspegitik, proiektua tokian bertan hasiko da, adibidez, Euskal Herriko haurreskoletan, non berrikuntza hezitzailearekiko eta haurren ongizatearekiko sentsibiltate handia dagoen. Produktuak ondo funtzionatu balu, gero beste autonomia-erkidego batzuetara edo Europako beste herrialde batzuetara ere zabaltzeko, izan ere, haurren hidratazioa sustatzeko beharra unibertsala da.

Merkatu-potentziala zabala da, hezkuntza goiztiarreko zentro asko baitaude teknologia honetaz baliatu daitezkeenak. Gainera, gizartean gero eta garrantzi handiagoa duten balioekin bat dator: osasuna, higiena, haurren autonomia eta iraunkortasuna (beira edo botila bakarreko erabilera saihestuz).

Laburbilduz, proiektu hau haur hezkuntzako zentroak, erakunde publikoak eta familien segmentu bati zuzenduta dago, haurren bizi-kalitatea hobetzea helburu duenari. Benetako beharrak dituen merkatu bat da, berrikuntzarako irekia eta hazkunde-potentzial handikoa, bai tokiko mailan bai maila nazionalean ere.

ITURRIAK →



STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). *IPE II 2025.*

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>